



Kenkari fiskalak I+G+b



1. HELBURUA

2. ARAUDIA

3. ALDERDI GILTZARRIAK

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

5. KALIFIKAZIOKO TXOSTEN TEKNIKOA

6. I. ERANSKINA: Eskaeraren txostena





Pizgarriak eman, bultzatu eta sustatu:

- I+G+b jarduerak Bizkaiko Lurralde Historikoan.
- Segurtasun juridiko handiagoa ematea, I+G+b-ko kenkari fiskalari.

SOZIETATTEEN GAINEKO FORU ZERGAREN ARAUDIKO BERRIKUNTZA JARDUERENGATIK KENKARIA EZARTZEKO TXOSTENAK EGITEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuna eta Finantza Sailak eta BEAZek hitzarmen bat sinatu dute, BEAZek “ondorio fiskalekiko kalifikazio txostenak” egin ahal izateko, Sozietateen Gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan eskatutako baldintza zientifikoak eta teknologikoak betetzeko.



ARAUDIA: Marko orokorra



11/2013 Foru Araua, abenduaren 5koa, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa (abenduaren 13ko BAO)

- 62. artikulua: Ikerketa eta garapen-jarduerengatiko kenkaria.
- 63. artikulua: Berrikuntza teknologikoko jarduerengatiko kenkaria.
- 64. artikulua: Ikerketa eta garapenaren eta berrikuntza teknologikoaren kontzeptutik kanpo gelditzen direnak, eta kenkariak interpretatzeko eta aplikatzeko arauak.

203/2013 Foru Dekretua, abenduaren 23koa. Honen bidez Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onesten da (Abenduaren 31eko BAO)

- 35. artikulua: Ikerketa eta garapen jarduerengatiko nahiz berrikuntza teknologikoko jarduerengatiko kenkariak aplikatzeko txosten arrazoitua.
- 36. artikulua: Txostenaren ondorioak eta Zerga Administrazioaren ahalmenak.
- 36.ter artikulua: Negozio-prozesuak berrikuntza teknologikoaren esparruan.





Ikerketa eta garapen-jarduerengatiko kenkaria (62. artikulua)

Ikerketa eta garapen jarduerak egiteak kuota garbian kenkaria egiteko eskubidea emango du, artikulua honek ezarritako baldintzetan

- A) «Oinarrizko ikerkuntza»** edo Zientzia nahiz teknologia alorrean ezaguera berriak eta ulermen handiagoa lortu nahi duen ikertze original eta planifikatua, merkataritza edo industria helbururik gabe.
- B) «Ikerkuntza aplikatua»** edo ezaguera berriak lortu nahi dituen ikertze original eta planifikatua, horiek produktu, prozesu edo zerbitzu berriak garatzeko nahiz badaudenetan hobekuntza esanguratsua egiteko erabiliak izan daitezten.
- C) «Garapen esperimental»** edo produktu, prozesu nahiz zerbitzu berrien plan, eskema edo diseinu batean aplikatutako emaitzak gauzatzea edo hobekuntza esanguratsua egitea, hala nola ezin merkatura daitezkeen prototipoak sortzea eta hasierako erakuste proiektuak edo proiektu pilotuak, beti ere industria aplikazioetarako edo komertzialki ustiatzeko aldatu edo erabili ezin badira.
- D) Software aurreratua sortzea, konbinatzea eta konfiguratzea**, produktu, negozio prozesu edo zerbitzu berriak edo nabarmen hobetuak egiteko erabiltzen diren teorema eta algoritmo edo sistema eragile, lengoia, interfaze eta aplikazio berrien bidez, betiere, aurrerapen zientifiko edo teknologiko esanguratsua badakar eta informatikaren eta konputazio zientzien arloko ziurgabetasun zientifiko edo tekniko bat konpontzea badu helburu.

Kontzeptu horrekin parekatuko da desgaitasuna duten pertsonei informazioaren gizarteko zerbitzuetarako sarbidea errazteko «softwarea», irabazteko asmorik gabe egiten denean. Jakintzaren aurrerapena eta ekarpena zientziaren eta teknologiaren beste arlo batzuetan egiten bada, «softwarea» oinarrizko ikerketako, ikerketa aplikatuko edo garapen esperimentaleko jardueretan parte hartu ahal izango du, kasuaren arabera, artikulua honetan zehaztutako baldintzetan.





Ikerketa eta garapen-jarduerengatiko kenkaria (62. artikulua)

Kenkariaren portzentajeak hauek izango dira:

A) Zergaldian kontzeptu horren zioz egindako gastuen %30.

Zergaldian ikerkuntza eta garapen jardueretan egindako gastuak aurreko bi urteetan egindakoen batezbestekoa baino handiagoak badira, batezbesteko horretaraino lehen adierazitako portzentajea aplikatuko da, eta **horren gaindikinarean %50a**.

Aurreko puntuetan xedatutakoaren arabera dagokion kenkariaz gain, aldi horretako gastuen zenbatekoaren **%20ko kenkari gehigarria** egingo da hurrengoetan:

- a) Erakundearen langileria gastuak, eskusiboki ikerkuntza eta garapen jardueretan ari diren ikertzaile kualifikatuei dagozkienean.
- b) Unibertsitatei, ikerketako erakunde publikoei edo berrikuntza eta teknologia zentroein agindutako proiektuak, Berrikuntza eta Teknologiako Zentroak arautzen dituen abenduaren 20ko 2603/1996 Errege Dekretuaren arabera erregistratuta eta aitortuta badaude, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea arautzeko oinarriak eguneratzen dituen urriaren 1eko 221/2002 Dekretuak araututako Teknologiaren Euskal Sareko erakundeei agindutako proiektuak.

B) Ibilgetu material eta ukiezinaren elementuetan egindako inbertsioen %10,

eraikinak eta lurrak salbu., beti ere soilik ikerkuntza eta garapen jardueretarako badira. Ikerkuntza eta garapen gastutzat joko dira zergadunak egindakoak, aipatutako jardueren lotuta dauden ondasunen amortizazioak barne, jarduera horiekin zuzenean lotuta badaude eta benetan horiek egiteko erabiltzen badira, proiektuen arabera banaka agertuz.



ARAUDIA: Zer da Berrikuntza Teknologikoa?



Berrikuntza teknologikoko jarduerengatiko kenkaria (63. artikulua)

Berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteak kuota garbian kenkaria egiteko eskubidea emango du, artikulua honek ezarritako baldintzetan:

«Berrikuntza teknologikoa da ondasun edo zerbitzu berriak edo hobetuak merkatuan sartzea ahalbidetzen duen aurrerapen teknologikoa, edo **enpresan negozio prozesu*** berriak edo hobetuak ezartzea, lehiakortasuna hobetzen laguntzeko.

Ondorio horietarako, ondasun, **zerbitzu edo negozio prozesuak berriak edo hobetuakizango dira**, baldin eta, **teknologiaren ikuspegitik, teknologia berriak erabiltzearen ondorioz** edo lehendik dauden teknologien erabilera edo konbinazio berrien ondorioz lehendikzeudenak baino ezaugarri edo aplikazio desberdinak badituzte, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

Jarduera horren barruan sartuko da produktu edo prozesu berriak plan, eskema edo diseinu batean gauzatzea, bideragarritasun azterketak egitea, prototipoak sortzea eta hasierako erakusketarako proiektuak edo proiektu aitzindariak eta ehunen lagindegia egitea, bai eta aplikazio industrialetarako edo merkataritzako ustiapenerako bihurtu edo erabili daitezkeenak ere.

** Informazio gehiago hurrengo diapositiban*

ARAUDIA: Zer da Berrikuntza Teknologikoa?



Honako hauek dira negozio-prozesuak:

A. Ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena:

Baliabideak edo lehengaiak eraldatzea azken produktua lortzeko, ondasuna zein zerbitzua. Jarduera bat ondasunen eta zerbitzuen ekoizpentzat jotzeko, enpresaren negozio nagusiarekin lotuta egon behar da.

Letra honetan honako jarduera hauek daude:

- Ingeniaritzako jarduerak.
- Produktuen muntaketa.
- Ekoizpenaren kudeaketa.
- Zerbitzuen prestazioaren kudeaketa.
- Kalitate-kontrolen establezimendua.
- Ekoizpenerako proba teknikoak, analisiak eta ziurtapenak egitea.
- Osagaiak fabrikatzea.



ARAUDIA: Zer da Berrikuntza Teknologikoa?



B. Administrazioa eta kudeaketa:

Beharrezko jarduera operatiboak, azken produktuarekin edo zerbitzuarekin zuzenean lotuta ez daudenak, baina enpresaren jarduera nagusiaren lagungarriak direnak: finantzen arloko eta administrazioaren arloko baliabideak eta prozesuak kudeatzea, kontrolatzea eta optimizatzea.

Letra honetan honako jarduera hauek daude:

- Enpresaren eta estrategiaren kudeaketa eta antolaketa.
- Gobernantza korporatiboa (legeria, plangintza eta harreman publikoak).
- Kontabilitatea, liburuak artetzea, auditoretza, ordainketak, eta finantzen edo aseguruaren inguruko beste jarduerak batzuk.
- Pertsonen kudeaketa (prestakuntza eta heziketa, langileak kontratatzea, lantokia antolatzea, aldi baterako langileak kontratatzea, nominak kudeatzea, osasun-laguntza eta medikuntza-laguntza).
- Ondasunen eta laguntza-zerbitzuen erosketen kudeaketa.
- Kanpoko harremanen kudeaketa: hornitzaileak edo aliantzak, batez ere.



ARAUDIA: Zer da Berrikuntza Teknologikoa?



C. Banaketa eta logistika:

Hornigaiak eta produktuak erostea eta biltzea, eta produktu bukatuak bezeroei eramatea.

Letra honetan honako jarduera hauek daude:

- Eskariaren inbentarioa egitea eta plangintza.
- Lehengaien eta produktuen erosketak kudeatzea.
- Biltegia kudeatzea.
- Eskaerak bideratzea.
- Produktuak ontziratzea.
- Produktuak garraiatzea eta ematea.



ARAUDIA: Zer da Berrikuntza Teknologikoa?



D. Marketina eta salmentak:

Kontsumitzaileen beharrianak eta jokabideak aztertzea, eta merkatuaren eskaria asetzen duen produktua edo zerbitzua sustatzea, zabaltzea eta saltzea.

Letra honetan honako jarduera hauek daude:

Merkatua ikertzea.

- Publizitatea eta komunikazioa.
- Merkatu berriak garatzea.
- Prezioak finkatzeko estrategiak eta metodoak.
- Salmenta-kanalen estrategia eta kudeaketa.
- Salmenta eta salmenta ondoko jarduerak, bezeroaren arretarako zerbitzuak barne.

E. Informazioa emateko eta komunikatzeko sistemak:

Enpresaren gainerako negozio-prozesuen kudeaketa operatiboa sustatzeko behar diren hardwarea eta software kudeatzea, garatzea eta mantentzea.

Letra honetan honako jarduera hauek daude:

- Beharrianak eta zehaztapen funtzionalak identifikatzea.
- Hornidura (CPUak, RAM, txartel grafikoa, lizentziak eta antzekoak).
- Diseinatzea, garatzea, mantentzea eta eguneratzea.



ARAUDIA: Zer da Berrikuntza Teknologikoa?



F. Produktua eta negozio-prozesuak garatzea:

Ondasun edo produktu bat edo enpresaren negozio-prozesuetako bat (ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena, administrazioa eta kudeaketa, banaketa eta logistika, marketina eta salmentak, eta informazioa emateko eta komunikatzeko sistemak) diseinatzeko edo birdiseinatzeko egin beharreko jarduerak.

Letra honetan honako jarduera hauek daude:

- Produktuaren edo zerbitzuaren kontzeptua eta ideia sortzea.
- Bideragarritasun teknikoari eta ekonomikoari buruzko azterketak (negozio-planak egitea).
- I+G jarduerak kudeatzea.
- Diseinatzea eta garatzea.
- Prototipoa sortzea, testak egitea eta baliozkotzea.
- Negozio-prozesua ezartzea.
- Produktua kaleratzea (ondasunen industrializazioa barne).





Berrikuntza teknologikoko jarduerengatiko kenkaria (63. artikulua)

Kenkariaren oinarria aldiko gastuen zenbatekoa izango da, hurrengo kontzeptuengatik:

A) Unibertsitatei, ikerketako erakunde publikoei edo berrikuntza eta teknologia zentroi agindutako proiektuak, Berrikuntza eta Teknologia Zentroak arautzen dituen abenduaren 20ko 2603/1996 Errege Dekretuaren arabera erregistratuta eta aitortuta badaude, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea arautzeko oinarriak eguneratzen dituen urriaren 1eko 221/2002 Dekretuak araututako **Teknologiaren Euskal Sareko erakundeei** agindutako proiektuak. **20 %**

B) Software ingeniariatza, diseinu industrial, eta produktu berriaren edo negozio prozesuaren ingeniariatza eta diseinua, hauexek barne hartuta: produktu edo prozesu bat fabrikatzeko, probatzeko, instalatzeko eta erabiltzeko beharrezkoak diren elementu deskribatzaileak, espezifikazio teknikoak eta funtzionamendu ezaugarriak definitzeko planoak, marrazkiak eta euskarriak sortzea eta lantzea, baita ehun-laginak egitea ere. **15 %**

C) Teknologia aurreratua patenteen, lizentzien, «Know how»-en eta diseinuen bidez eskuratzea. Apartatu honetan sartuko dira industria patenteen eta diseinuen eskaerei dagozkien gastuak. Ez dute kenkarirako eskubiderik emango zergapekoarekin lotutako pertsoneri edo entitatei emandako kopuruek. Kontzeptu horri dagokion oinarria ezingo da milioi bat eurotik gorakoa izan. **15 %**

D) ISO 56002, UNE 166000 edo antzeko arauen betetze-ziurtagiria lortzea, arau horiek ezartzeari dagozkion gastuak barne hartu barik.» **20 %**

Berrikuntza teknologikoko gastutzat hartuko dira zergapekoak egindakoak, artikulua honetan aipatutako jardueri zuzen lotuta badaude eta egiaz horiek egiteko erabiltzen badira, proiektuaren arabera bananduta agertuz gero.

ARAUDIA: I+G+b kontzeptutik kanpo



Ikerketa eta garapenaren eta berrikuntza teknologikoaren kontzeptutik kanpo gelditzen direnak, eta kenkariak interpretatzeko eta aplikatzeko arauak (Art. 64)

Honako hauek ez dira joko ez ikerketa- eta garapen-jardueratzat ez berrikuntza teknologiko jardueratzat:

A) Berritasun zientifiko edo teknologiko esanguratsurik ez dakarten jarduerak. Bereziki, hauek: produktuen edo prozesuen kalitatea hobetzeko errutinazko ahaleginak; lehendik dagoen produktu edo ekoizpen-prozesu bat bezero batek ezarritako betebeharrak zehaztetara egokitzea; aldizkako edo sasoiko aldaketak, eta lehendik dauden produktuak beste antzeko batzuetatik bereizteko egindako aldaketa estetikoak edo garrantzi txikikoak.

B) Industria-ekoizpeneko eta zerbitzuak emateko edo ondasun-zerbitzuak banatzeko jarduerak. Bereziki, hauek: ekoizpen-jardueraren plangintza; ekoizpenaren prestaketa eta hasiera, tresnen doikuntza eta foru arau honetako 63.3 artikuluan azaldutako artean ez dauden bestelako jarduerak barne; ikerketa- eta garapen-jarduerak edo berrikuntza-jarduerak bezala kalifikatutako jardueren afektatuta ez dauden ekoizpenerako instalazioak, makinak, ekipak eta sistemak prozesuei erantzea edo instalazioak, makinak, ekipak eta sistemak aldaketak egitea; etendako ekoizpen-prozesuetako arazo teknikoak konponketa; kalitatearen kontrola eta produktu eta prozesuen normalizazioa; gizarte-zientzien alorreko prospekzioa eta merkatu-azterketak; merkaturatzeko sareak edo instalazioak ezartzea, eta jarduerak horiekin loturiko langileen trebakuntza eta prestakuntza.

C) Mineral eta hidrokarburoen esplorazioa, zundaketa edo prospekzioa.



ARAUDIA: I+G+b kontzeptutik kanpo



Ikerketa eta garapenaren eta berrikuntza teknologikoaren kontzeptutik kanpo gelditzen direnak, eta kenkariak interpretatzeko eta aplikatzeko arauak (Art. 64)

Aurreko 62. eta 63. artikuluetan aipatutako kenkarien oinarrian ez dira sartuko honako gastu hauei dagozkien zenbatekoak, besteak beste:

- A)** Bidaia gastuak, dietak, egonaldia eta joan-etorriak.
- B)** Prestakuntza gastuak
- C)** Proiektuaren dokumentazio gastuak.
- D)** Proiektuaren kudeaketari eta ziurtapenari lotutako aholkularitza eta ziurtapen gastuak.
- E)** Administrazio gastuak eta bulegoko materiala.
- F)** Proiektuari atxikitako enpresa gastu orokorrak, ezta, oro har, ikerketako eta garapeneko jardurekin edo berrikuntzako jardurekin zuzenean lotuta ez daudenak eta jarduera horiek egiteko benetan aplikatzen direnak ere.



ALDERDI GILTZARRIAK



Enpresak urteko txostena eskatzen du, urte anitzeko proiektuak izan arren.



Kalifikazio-Txostenaren eskaera urtean gauzatutako jarduerak dituzten proiektuei buruzkoa izango da, benetan egindako gastuekin.



BEAZen webgunearen bidez egin daiteke eskaria, zergaldia amaitu biharamunetik hasi eta 45 eguneko epean.



BEAZek kalifikazio-txostena emango du eta bertan I+G eta berrikuntza teknologiko jardueretarako koherentetzat onartu den aurrekontuko zenbatekoa agertuko da.



BEAZek urte naturala+1eko 06/30 baino lehen egingo ditu txostenak.



Kalifikazio Txostena eskatzea eta ondoren erabiltzea borondatezkoa da enpresarentzat, baina erabiltzen bada, loteslea da Ogasun eta Finantza Sailarentzat.



Doaneko zerbitzua da.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK



- [BEAZeko webgunearen](#) bidez aurkeztuko da eskaria.
- Eskari horretan bete beharreko informazioa:



Administrazio datuak

- 1.Eskatzailearen datuak
- 2.Enpresaren datuak
- 3.Proiektuaren oinarritzko datuak
- 4.Jasotako diru-laguntzak
- 5.Enpresa laguntzaileak

Informazio teknikoa

- 1.Proiektuaren laburpena
- 2.Berrikuntza eta berritasun maila
- 3.Proiektuaren faseak
- 4.Lantaldea eta baliabideak
- 5.Proiektuaren segimendua

Informazio ekonomikoa

- 1.Xehetasun ekonomikoa
- 2.Proiektuaren laburpen ekonomikoa
- 3.Erantsitako dokumentuak

- Hauek ere atxiki beharko dira:
 - **KANPOKO LANKIDETZAK, MATERIAL SUNTSIKORRAK ETA BESTE GASTUAK:** Gastu guztietako facturak eta kontratuak (15.000 € baino gehiagoko kopuruentzat).
 - **BARRUKO LANGILEAK:** 190 eredu zehaztasunekin / 10T, RNT eredu (lehengo TC2) eta Indarrean dagoen hitzarmen kolektiboa.
 - *Beste edozein agiri administratibo edo tekniko BEAZen iritziz ebaluaziorako beharrezkoa izanez gero edo enpresak aurkeztu nahi badu, proiektuari irimotasuna emateko, hala nola, merkatu-azterketak, bideragarritasun tekniko edo ekonomikoko azterketak, diseinuak, argazkiak...*



- Baldin eta proiektuko jarduerak garatzen **ikertzailerik** badago, honako hauek erantsi beharko dira:
 - Proiektuan “garapen-jarduerei oso-osorik lotutako ikertzaile kualifikatua” bezala diharduten langileen **Curriculum Vitaea**.
 - Proiektuan talde ikertzaile bezala adierazitako pertsona bakoitzak burutuko dituen **eginbeharren xehakapena**.
 - Pertsona hauek proiektua burutuko den denboraldian egingo dituzten **gainerako eginbeharren** xehetasunak.
- Azkenik, web-plataforman hurrengo dokumentazioa erantsi beharko da:
 - Enpresaren ordezkariak sinatutako **erantzukizunpeko adierazpena** (eredu ofizialean).
 - **Notarioaren ahalordea** eskariaren xede den enpresa ordezkatu ahal izateko eskatzaileak.
 - Erakundearen **IFZren** kopia.



AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK



Proiektuen izapidetzea eta kalifikazioa:

- Eskaera Beazeko webgunearen bidez egingo da, horretarako ezarritako epeen barruan.
- EAEko hizkuntza ofizialetako batean aurkeztu beharko da memoria (euskaraz edo gaztelaniaz). Hala ez bada, eskabidea kanpoan geratuko da ondorio guztietarako.
- Eskaera-epareen barruan aurkeztu beharko dira, osorik eta zuzen, bai zinpeko aitortpena, bai eskatzaileak eskabidea egin duen enpresa ordezkatzeko duen notario-ahalordea eta erakundearen IFKren kopia. Hala ez bada, eskaera ezeztatu egingo da ondorio guztietarako, eta ez da epea luzatzea edo/eta errekerimendurik egitea onartuko.
- Aurkeztutako zinpeko aitortpena atal honetan eskuragarri eta deskarga daitekeen eredu ofizialera egokitu beharko da. Agiri horiek enpresako legezko arduradunak sinatu beharko ditu, dokumentazioa osatutzat jo dadin, espedienteari buruzko ebazpena emateko. *OHARRA: Eskuz zein elektronikoki sinatutako zinpeko aitortpenak onartzen dira.*
- Ez da errekerimendurik egingo proiektuaren dokumentazio teknikoari dagokionez, eta eskaera egiteko epearen barruan plataforma honetan aurkeztutako dokumentazioa baino ez da ebaluazioaren emaitza izango.
- Egindako gastuei buruzko argibideei buruzko errekerimendu zehatzak egingo dira. Ez da inola ere eskatuko gastuaren nahitaezko frogagiririk (fakturak, kontratuak, 10T, RNT edo antzekoak), baldin eta ez bada epe horren barruan aurkeztu. Beraz, eskabide-epareen barruan aurkeztutako egiaztagiririk ez duten proiektuan egindako gastuak baztertu egingo dira ondorio guztietarako.
- Kalifikazio-txostenak bide telematikoaz egingo dira eskaera-plataformaren barruan, posta elektronikoz jakinarazi ondoren.





Proiektuak kalifikatzeko ebaluazio-irizpideak:

- Funtsezko berritasuna, proiektuaren garapen zientifikoa eta/edo teknologikoa eta proiektuaren garapenean aurreikusitako lehiakortasunaren hobekuntza.
- Proiektuaren garapenerako beharrezkoak diren antolakuntza, plangintza, metodologia eta jarraipena.
- Aurkeztutako dokumentazioaren kalitatea, argitasuna eta xehetasuna.
- Aurkeztutako gastuen koherentzia.





- Dokumentazio guztia aztertu ondoren txostena egingo da, positiboa nahiz negatiboa izan.

- Txostenak urte naturala+1eko 06/30 baino lehen egingo dira.

- Txostenean lauki batean I+G eta berrikuntza teknologikoko kontzeptu bakoitzean onartutako aurrekontua adieraziko da.

- I+G+b jarduerengatik kenkari fiskalaren ondorioetarako enpresak sartu beharreko zenbatekoa hau da: onartutako gastuak (BEZ kanpo) ken jasotako laguntzetan ezarri beharreko zenbateko eratorria zati ehun eta erakundeari ezar dakioken karga mota.





I. Eranskina

Eskaeraren txostena

ADMINISTRAZIO-DATUAK



Eskatzailearen datuak

Eskatzailearen oinarrizko informazioa sartuko da.

- Izena
- Deiturak
- Kargua
- NAN
- Telefonoa
- E-Posta

Enpresaren datuak

Enpresaren nortasunari buruzko datuak emango dira, jarduera, gerentzia eta plantillari eta fakturazioari buruzko informazioa..

- Izen soziala
- IFK
- Helbide soziala
- Herria
- Posta kodea
- Telefono zenbakia
- Web
- Jarduera
- CNAE
- Kudeatzailea
- Izen deiturak
- NAN
- Fakturazioa eta langileria N-1 eta N-2 urteetan*

Proiektuaren oinarrizko datuak

Proiektuari buruzko informazioa sartuko da.

- Proiektuaren izenburua
- Proiektuaren hasiera eta amaiera data
- Proiektuaren laburpen orokorra (gehienez 1.000 karaktere)
- Jarduera-tipologia
- Proiektuak sortuko duen jarduera ekonomiko eta enpleguari buruzko aurreikuspen ekonomikoak

Lankidetzan aritzen diren enpresak

Proiektua lankidetzan egiten ari diren enpresak adierazi.

- Izen soziala
- IFK

***Fakturazioa:** Galeren eta Irabazien Kontuko 1. epigrafeari buruz ari gara, “negozioen zifraren zenbateko garbia” delakoari buruz.
Langileria: RNT ereduari ageri diren gizarte segurantzara afiliatutako langile kopurua.



Proiektuaren laburpena

Arazo edo aukera	Proiektuak konpondu nahi duen arazo zientifiko, industrial, ekonomiko edo soziala adieraziko da hemen, baita eskaintzen dituen aukerak eta interesatuentzako duen garrantzia ere. (Gehienez 1000 kar.)
Helburuak	Helburuak: Lortu nahi diren helburuen (teknologikoen, enpresa arlokoen eta bestelakoen) azalpen labur eta zehatza, baita horien lorpenak neurtzeko erabili diren adierazleak ere. (gehienez 500 kar. helburuko) <ul style="list-style-type: none">• Zientzia helburuak• Teknologia helburuak• Enpresa helburuak• Bestelako helburuak
Proiektuaren azalpen eta norainokoa	Erraz ulertzeko moduan azaldu zertan datzan proiektua, burutuko diren jarduerak, haren norainokoa eta proiektuaren ondorioz emaitza izango den produktu konkretua (argitalpena, txostena, patentea, diseinua, eskema, prototipoa, produktua...), arazoa konpontzeko edo planteatutako aukera aprobetxatzeko eta aurrez adierazitako emaitzak lortzeko. (gehienez. 5000 kar.)





Proiektuaren berritasun maila

Artearen egoera	Azaldu zientzia-ezagutza, teknologia, produktu eta prozesuen egoera proiektuak lortu nahi dituen helburuei dagokionez, maila sektorial, nazional eta nazioartekoan. (gehienez 2000 kar.)
Berritasun nabarmena	<p>Azaldu argi eta erraz uler daitekeen moduan proiektuak dakarren berrikuntza, bai eta enpresak hartutako irtenbidearen aurrean egon litezkeen alternatibak ere (gehienez 1000 kar. Lauki bakoitzeko):</p> <ul style="list-style-type: none">• Lehiakortasuna*• Zientifiko**• Produktua• Teknologia• Negozio-prozesua/Prozesua***• Merkatua**** <p><i>*Ez da aplikatzen I+G proiektuetarako/** Soilik I+G proiektuetarako/**** Negozio-prozesuen proiektuetarako/***** Ez da aplikatzen negozio-prozesuen proiektuetarako</i></p>
Ikerketa taldea	Adierazi ikerketa taldearen osaera, haren prestakuntza eta esperientzia proiektu honi dagokionez eta haren garapenean egin dezakeen ekarpena. (gehienez 2000 kar.)





Proiektuaren faseak eta jarraipena

Proiektuaren faseak

Proiektuaren faseak identifikatu, eta bakoitzaren hasiera eta amaiera dataz gain, azalpen zehatza eman. Fase bakoitzean lortutako emaitza adierazi eta neurtzeko zer adierazle erabili diren ere bai.

- Fasearen izenburua.
- Fasearen nolakotasuna: Adierazi I+G edo berrikuntza fasea den.
- Jarduera-sailkapena
- Aurreikusitako hasiera data.
- Aurreikusitako amaiera data.
- Jardueraren azalpen zehatza. (gehienez 500 kar.)
- Entregagaia.
- Aurreikusitako emaitza. (gehienez 500 kar.)
- Neurketaren adierazlea. (gehienez 500 kar.)

Proiektuaren jarraipena

Proiektuko jarraipen jarduerak eta metodologia zehatzu, horiei esker lortu izango baitira planifikatutako emaitzak ezarritako kalitatearekin, ezarritako epean eta ezarritako aurrekontuarekin. Jarraipena egiteko erabilitako tresnak adierazi. (gehienez 1.000 kar.)





Proiektuaren laburpen ekonomikoa

Kanpoko lankidetzak	Adierazi proiektuan lagunduko duten erakunde edo profesionalak, haien esperientzia eta proiektuan egindako ekarpena.
Barruko pertsonala	Identifikatu proiektuan parte hartuko duen barruko pertsonala, haren prestakuntza, esperientzia, proiektuan egindako ekarpena eta orduen kostua (urteko soldata gordina + enpresaren kargura doan Gizarte Segurantza / hitzarmeneko ordu kopurua).
Material suntsikorra	Zehaztu proiektua burutu bitartean kontsumituko diren materialak, erabilera justifikatuz.
Beste gastu batzuk	Proiektuaren emaitzak lortzeko ezinbestekoak izango diren beste gastu batzuk.
Esklusiboki I+Gn erabiliko diren inbertsioak	Esklusiboki I+Gn erabiliko den ibilgetu material eta ezmaterialeko inbertsioak: Aipatu garapenak egiteko beharko diren inbertsioak.
ISO 56002, UNE 166000 eta antzeko ziurtagiriak	Berrikuntzaren kudeaketari lotutako arauak betetzen direla egiaztatzen duten ziurtagiriak lortzea.
Patenteak, lizentziak, "know how" a eta diseinuak eskuratzea	Teknologia aurreratuak eskuratzea: patenteak, lizentziak, know how eta diseinuak. Patenteak eta diseinu industrialak eskatzeko gastuak sartzen dira.





Proiektuaren laburpen ekonomikoa

		I+G AURREKONTUA	b AURREKONTUA	GUZTIRA
Kanpoko gastuak	Kanpoko lankidetzak ZTBES			
	ISO 56002, UNE 166000 eta antzeko ziurtagiriak			
	Kanpoko beste lankidetzak batzuk			
	Material suntsikorra			
	Beste gastu batzuk			
Barruko gastuak	Pertsonal ikertzaile kualifikatua eskusiboki I+Gn			
	I+G+bko jardueretako gainerako barruko pertsonala			
Inbertsioa	Ibilgetu material eta ukiezineko inbertsioa, eskusiboki I+Gn			
	Patenteak, lizentziak, "know how" a eta diseinuak eskuratzea			



Eskerrik asko!

¿Galderaren bat?

 944 395 622

